

1. BALIO PROPOSAMENA

Balio proposamena enpresa batek bezeroei egiten dien promesa nagusia da zertan lagunduko dien, zein arazo konponduko duen eta zergatik den bere produktua edo zerbitzua besteena baino hobea, eraginkorragoa edo bereziagoa.

Vitalix aplikazio berritzailea da, larrialdi baten lehen minutuetan erantzun azkar eta koordinatua eskaintzen duena, osasun-prestakuntza duen jendea laguntza premiaz behar dutenekin konektatuz.

Aplikazioak geolokalizazio adimenduneko sistema bat erabiltzen du boluntario hurbilenak aurkitzeko eta zuzenean larrialdi-zerbitzu ofizialekin (112 / SOS Deiak) konektatzeko, jarduera guztiak profesionalek gainbegiratuta egongo direla bermatuz.

Vitalixek, gainera, lehen sorospenen etengabeko prestakuntzarako gune bat du, erabiltzaile bakoitzaren mailara egokitutako ikastaro eta simulazio interaktiboekin. Horrela, hezkuntza pertsonalizatua eta etengabeko prestakuntza sustatzen dira.



Balio kualitatiboa eta kuantitatiboa


Balio kuantitativo:

- Erantzun-denbora %30 eta %40 artean murrizten du.
- Osasun-zerbitzuen kostu osoa murrizten du.

Aldaketa hauek sistema eraginkortasunean eragin zuzen eta kuantifikagarria dute. Larrialdi kasuetan, erantzun-denboren azkartzeak emaitzak hobetzen ditu eta tratamendu konplexuen beharra gutxitzen du. Ondorioz, osasun-kostuak eta baliabideen kontsumoa murriztu egiten dira.

Balio kualitatiboa:

- Herritarren arteko konfiantza eta segurtasuna handitzen du.
- Lankidetzak eta parte-hartze aktiboa sustatzen du.
- Herritarrak osasun publikoko aktore nagusi bihurtzen ditu.



Balio hauek ez dira zenbakitan adierazten, baina bizitza egunerokoan eragin argia dute. Segurtasun-sentsazioa handitzen denean, jarrera lasaia eta seguruagoa sortzen da;

elkartasuna sustatzen denean, komunitatearen konpromisoa eta kohesioa sendotu egiten dira; eta herritarrei protagonismoa ematen zaienean, haien lotura osasun-sistemeekin indartu egiten da. Guztira, elementu hauek guztiak inguru sozial seguruago eta bateratuago bat eraikitzen laguntzen dute.

BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.

-STARTINNOVA plataformako materiala.

-<http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>

- Logoa: https://desing.com/_s

-Argazkiak:

<https://web.ziganetworks.com/cursos/12696-introduccion-a-los-primeros-auxilios/>

<https://chatgpt.com/>